

## Abesbatzen lehendakari berria

Aitor Imaz da Gipuzkoako elkarteko burua ▶ 5



TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

## HITZAko harpidedun kanpaina ondo doa

Laguntza emateko falta direnei egiten zaie deialdia ▶ 4

TOLOSA ▶

## Mokoroaren meza eman du musika kaperak

Jende ugari izan zen atzo Santa Maria parrokian ▶ 6

ZIZURKIL ▶

## Kirol ekitaldi ugari izango da asteburu honetan

Bihar, mahai-ingurua eta etzi, hamabi orduko egitaraua ▶ 7

# Etxean bezala sentitu dira turistak zubi honetan

**POZIK** ▶ Eskualdeko landetxeetan oso gustura izan dira kanpotarrak

**BISITAK** ▶ Ingurua bisitatzeko aukera izan dute egun hauetan ▶ 2-3



## Zunbeltz-en 25 urteak festa giroan

**VILLABONA** ▶ 25. urtemugako festa izan zuten atzo Zunbeltz elkarteko bazkideek egun osoan zehar. Mezaren ondoren kalejira egin zuten Astiazaran anaiak eta Juan Mari Beltranekin —argazkian—. Bazkarian 60 bat lagun elkartu ziren. 1948tik honako Santio jailetako egitarauen erakusketa ere egin dute egun hauetan elkartean. Festa giro ederra izan zuten. O.ESKITXABEL ▶ 7

**ESTILISTAK honekin?**

Abenduaren 11n, Tolosako **ziber-ileapaindegiak** bere ateak irekiko ditu **Sta. Maria plaza, 1**

**TOLARGIK eta TOLOSA GASAK**  
energiaz betetako egutegi bat aparituko dizute.

Tolosar gutxiak gure herria inbertitu duten energia, geroz eta distiratsua den Tolosa baten irudiekin saritu nahi duguz. Zator gure bulegotara eta har ezazu zure egutegia.

**TOLARGIK** BUKATU ARTE  
Pablo Garmendia, 34-lekua

**TOLOSAGASAK**  
Arcelegina, 18-lekua

hitza **txokoa** lagunen

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **KAPRITXO**k oparitutako arropa eta osagaiak zozketatuko ditugu

**KAPRITXO**

Landabeikoa z/g • LEITZA  
Tel.: 948 51 09 94

TURISMOA ▶

# Landa turismoetan, etxean bezala

Ingurua bisitatzeko eskualdeko landetxeak aukeratu ohi dituzte turistek; pasatu den zubia ez da salbuespena izan eta hainbat familia ostatu mota honetan izan dira, etxeko giroaren bila



Paisaia da atzeritarrak inguru honetara etortzeko arrazoi nagusienetarikoa; mendia ezezik, kosta ere bisitatzeko dute bisitari gehienek. O. ESKITXABEL

O. ESKITXABEL/I. GARCIA

Pasa den oporraldi txikia eskualdeko hainbat landetxetan pasa duten hainbat familiarekin egoteko aukera izan du Hitzak. Tolosaldean ostatu hartzeko arrazoi ezberdinak izan dituzte, baina guztiak bat datoz gauza batean: baserri turismoetan etxean bezala egoten da.

Jaendik Pedro Espinar eta Maria Angeles Martinez etorri dira, beren alaba eta honen senarrarekin batera. Gurera etortzen diren lehenengo aldia da. Anoetako Haritzondo landetxean hartu dute ostatu. Baserriaren ondoko apartamentuan izan dira, larunbata arratsaldetik, atzo goizera bitarte.

Bartzelonatik —«Gracia auzotik»— etorritako Dalmau-Elorza sendia Zizurkilgo Nekola baserrian izan da, larunbatetik atzora bitarte. Pere eta Arantxa, Marina eta Andreu seme-alabekin etorri dira. Ur-



Bidegoian. Eguzkitza landetxean lau egun pasa dituzte Madrilgo bi familia hauek. O. ESKITXABEL

teak daramatzate Gipuzkoara etortzen, izan ere, Arantxa txikitari Donostian bizi izan zen eta gero familiarekin Kataluniar joan ziren bizitzera. Oso gustura etortzen dira inguru honetara; beren bigarren etxea dela esan daiteke.

Bidegoiango Eguzkitza landetxean Madrilgo bi familia izan dira egunotan. Guztira sei kide, familia bakoitzak seme bana baitzuen.

Nafarroa, Gasteiz eta Kantauri kostako hainbat herrialde ezagutzen zituzten jaendarrek; egunotan Gipuzkoa eta Bizkaia ezagutzeko aukera izan dute. Askok gustatzen zaie penintsulako iparralde berdea: «Niri bereziki asko gustatzen zaizkit mendia eta landa eremuak. Familiarekin gutxiago, baina», dio irrifarrez Pedro Espinarrek.

Euskaldunen harrerarekin gustura agertu da, bestalde, kataluniar sendia: «Oso ondo hartu gaituzte beti hemen».

Madrilgo familiek ere iritzi bera dute: «Hemengo jendearen izaera asko gustatu zaigu», azaldu du Esther Ruizek, talde honetako hiztunenak. Horren harira, jendea nahiko serioa dela azaldu dute jaendarrek: «Zaila da harreman bat hastea. Baina nabaritzen da, Andaluziarekin alderatuz, adiskidetasuna sortuz gero gehiago irauten duela».

**Landetxeetarako joera**

Interneten bitartez ibili ziren leku bila jaendarrak. Baserri turismoko agentziara ere deitu zuten eta han eman zizkioten landetxe ezberdinen erreferentziak: «Azkenean alderdi honetara etorri ginen. Egia esan, guri berdin zitzaigun Bilbo aldera joan edo hona etortzea. Euskal Herrian ez dago distantzia handirik. Ez da Andaluzian gertatzen den bezala, Jaendik Sevillara joateko 250 kilometro egin behar dituzu Espinarrek. Errepideen zoruari buruz iritzi ona du: «Bihurgune gehiago dituzte, baino zorua Andaluziakoa baino hobeto dago». Etxetik kanpora ateratzean landetxeak aukeratzen ditu jaendar familiak: «Gehiago gustatzen zaizkigu. Lasaitasuna bilatzen dugu. Jaen bertan ere landetxeetara joaten gara. Hoteletan, eguraldiagatik edo ezin baduzu atera, gelan sartuta egon behar duzu».

Baserri turismoa egiten ohi-tuak daude hiru familiak. Bertan arreta ere ezberdina dela aitortzen dute: «Etxean egotea bezala da», azaldu dute jaendarrek. Katalanak ere iritzi berdinekoak dira: «Katalunian ere landetxeak erabiltzen ditugu bidaiatzen dugunean. Landetxeak ezagutu genituenetik ez dugu beste modu batera bidaiatzen. Gainera, txakurra daukagu eta hoteletan edo pensioetan ez dituzte animaliak onartzen». Landetxeekin alderatuz, hotelak oso inper-tsonalak direla pentsatzen dute, bestalde, madrildarrek: «Landetxeetan lasaitasun handiagoa egoten da», azaldu du Esther Ruizek.

**Kostaldea, bisitatuena**

Kostaldeko herriak bisitatu dituzte, batez ere, madrildarrek; Getarian, Zarautzen, Hondarribian, Pasai Donibanen, Biarritzen eta Donibane Lohitzunen izan dira, besteak beste. Donostian ere izan dira, Jaengo eta Bartzelonako familien antzera. Alde Zaharra bisitatu dute, gainera, denek. Probatutako mokadutxoak oso onak zeudela azaldu dute.

Donostian ezezik, inguru honetan pasatako egunak jaten



Anoeta. Haritzondo landetxean izan da Jaendik etorritako familia. I. GARCIA



Zizurkil. Bartzelonatik etorritako Dalmáu-Elorza sendiak Nekola baserrian hartu du ostatu. I. GARCIA



**ESTHER RUIZ**  
MADRIL

«Gauza asko ditugu ikusteko eta ziurrena abuztuko oporrak hemen, landetxe honetan, pasako ditugu»



**PEDRO ESPINAR**  
JAEN

«Jendea serioagoa da, baina nabaritzen da hemen adiskidetasunak Andaluzian baino gehiago irauten duela»



**ARANTXA ELORZA**  
BARTZELONA

«Lehen ez zen hainbeste euskara entzuten. Orain gustatuko litzaiguke hizkuntza jakitea gauzak gehiago ulertzeko»

eman dituztela azaldu dute Madrileko familiek: «Oso ondo jaten da hemen; jatetxeetan nahiz landetxean ezin hobeto jaten dugu», diote. Orioko bixigua, Pasaia Donibaneko arraina... aipatu dituzte bisitariek.

Jaendarrak, hala ere, kezu agertu dira: «Andaluziarekin alderatuz, prezioak orokorrean garestiagoak dira», azpimarratu dute.

Tolosan ere izan ziren madrildarrek eta baita katalunia-

rrak ere. «Merezi du Tolosa ezagutzea: Alde Zaharra oso polita utzi dute», azaldu dute kataluniarrek.

Azpeitia, Aginaga, Aiako Harriak, Bilbo... ere ezagutzen izan dira.

Durangoko azoka bisitatzen izan ziren, bestalde, jaendarrak: «Dena euskaraz zegoenez, ez ginen denbora luze gelditu».

Kataluniarrei asko gustatzen zaie inguru honetako paisaia: «Askotan, autoarekin goazenean, bide edo leku interesgarri bat ikusten badugu, hortik joaten gara». Esther Ruiz madrildarrek ere «paisiarekin txundituta» geratu direla aipatu dio HITZARI.

**Euskara ahoan**

Hizkuntzari dagokionez, «Katalunian baino irekiagoak» gara iritzi diote Jaendik etorritakoek. «Euskaraz egiten ez dakigula ikusitakoan, erderara pasatzen dira berehala. Katalunian izan garenean, asko kostatzen zaie gaztekeraz hitz egitea, eta ez dakitenak ondoan izan arren, askotan katalanez hitz egiten jarraitzen dute». Iritzi bera du Jaime Iranzu madrildarrek: «Euskaldunek asko errespetatzen dituzte atzerritarak».

Gai beraren inguruan, Kataluniatik etorritako turistek azken urteotan somatutako aldatetaren inguruan hitz egin dute: «Lehen ez zen ia euskarik entzuten eta orain ezberdina da: gauza asko, aldarrikapen kartelak adibidez, euskaraz daude. Gustatuko litzaiguke hizkuntza gehiago ezagutzea esanahia ulertu ahal izateko».

Euskarazko hitzak apuntatzen aritu da, bestalde, Bidegoianen izandako Alberto Herreras madrildar gaztea. Landetxeko nagusiari, Ainhoari, entzundako hitzak eta errepideko seinaleetan ikusitako hitzak apuntatu eta ikasi dituela azaldu du. Bisitatu dituzten herrietan, jende gehienak euskaraz egiten duela adierazi dute bere gurasoek.

Egunotan egindako eguraldiarekin harriritu geratu dira Madrilgo bi familiak: «Nire ahizpak euria egingo zuela eta, aterkiak, zamarrak...hartuta etortzeko esan zigen. Bera Benidormera joan da; han euria egin du eta hemen ez. Nahiz eta hotza egin, ateri egon da eta oso gustura ibili gara hainbat herri bisitatzen». Hala ere, ez dute izan nahi adina herri bisitatzeko denborarik. Izan ere, larunbatean etorri eta herenegun Madrilerako bidean jarri ziren «auto ilararik ez harrapatzeko eta buelta lasaia egiteko». Gauzak horrela, abuztuan berriro etortzeko asmoa dutela azaldu dute: «Gauza asko ditugu ikusteko eta ziurrena abuztuko oporrak hemen, landetxe honetan, pasako ditugu».

HITZA ▶

# Ondo doa harpidedunen kanpaina

Oraindik laguntza emateko falta diren harpidedunei egiten zaie deia

## ERREDAKZIOA

Iazko harpidedun laguntzaileen kopurua aspaldi gaindituta, ondo dihoa Hitzaren kanpaina, baina oraindik urteko borondatezko laguntza emateko jendea falta da. Eta denen laguntza behar da proiektua sendotzeko, autofinantzaketa ziurtatzeko eta aurrera jarraitzeko.

Azaroan zehar HITZAKO harpidedunek telefono deiak eta gutunak jaso zituzten, kanpainaren informazioa emanez. Kontu korrontearen zenbakia eman zutenei 42 euroko kobraketa egin zieten. Beste batzuk eskuz ordaindu dute erredakzio bulegoan edo HITZAREN kontu korrontean egin dute diru sarrera.

## Laguntza emateko deia

Oraindik laguntza emateko falta direnei egiten zaie orain deia. Kontu korrontea eman nahi dutenek Bezero Arreta telefonora (943 30 43 46) deituta edo harpidetza@hitza.info posta elektronikoz egin dezakete. Kontu korrontea eman nahi ez dutenek laguntza emateko beste bide batzuk dituzte: erredakzio bulegoan (Araba etorbidea 5, atzea. Tolosa) eskuz ordaindu edo Euskadiko

## BEHARRA

Denen laguntza behar da proiektua sendotzeko, autofinantzaketarako eta aurrera jarraitzeko

## NOLA EMAN?

Erredakzio bulegoan edo Euskadiko Kutzako kontuan eman daiteke urteko 42 euroko laguntza

Kutxan diru sarrera egin, gutunez emandako kontu korrontean eta harpidedunaren kode zenbakia zehaztuz.

Laguntza horrek proiektuarentzat duen garrantzia azpimarratzeaz gain —sendotzeko, ekimen berriei ekiteko, autofinantzaketara ziurtatzeko—, laguntza ematen duten harpidedunek abantaila batzuk ere badituztela gogoratu nahi dugu berriro: zozketetan parte hartu —zinema eta pilota sarrerak, dendarri laguntzaileen opariak...—, promozioetan parte hartu, zenbait kanpainatan deskontuak dendetan... Ez galdu aukera horiek!



Irakurleek gustura hartzen dute egunkaria; orain dute urteroko laguntza emateko aukera. J.SAIZAR

## INKESTA ▶ PERTSONAIA EZAGUNEN IRITZIAK

Hauek dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat pertsonaia ezagunek HITZARI buruz esan dutenak.

### IÑAKI PERURENA

HARRI-JASOTZAILEA (LEITZA)

«HITZA gurea delako eta gertukoa gerturatzen duelako»



«Hitza bera izen egokia delako. Hitza gurea delako eta gertukoa, gertutik, gerturatzen duelako».

### ANJEL ALKAIN

AKTOREA (ASTEASU)

«Etxeko kontuak jakitea gauza polita da»



«Dena gustatzen zait HITZATIK. Agian, zerbaiten falta bilatzen hasita, umorea falta da. Etxeko kontuak jakitea gauza polita da. Irakurtzen hasi eta konturatzerako bukatu egiten da, di-da. Hori ere gustatzen zait».

### LUKAS MENDIKUTE

CIT-TEE-KO LEHENDAKARIA (HERNIALDE)

«Herrietako albiste txikiak handi bihurtzen ditu»

«Inguruko notiziak irakurtzeko balio du. Albiste txikiak



handi bihurtzen ditu. Adibidez, Hernialdeko roll-eski proba ez da hain ondo eta zabal beste inon eman. Horretarako da HITZA, istorio txikiak osorik emateko eta konpletoak izateko».

### ANJEL CUERDO

BIDAIRIA (TOLOSA)

«Ikusten ez genuen alderdi ezkutua kaleratzen du»



«Bailara bakoitzeko informazioa eta egunerokotasuna gertutik jarraitzen du. Desberdintasuna markatzen du beste egunkariekin. Ikusten ez genuen alderdi ezkutua kaleratzen du egunero. Kanpoko eta urrutiko albisteak irakurtzen ohituta gaude, baina hurbilekoak ere garrantzia handia du».

### UGAITZ RENOBALDES

PILOTARIA (ALEGIA)

«Denagatik oso ondo dago HITZA»



«Interesgarria da inguruko informazioa ematen duelako. Etxean gus-tura hartzen dugu. Denagatik oso ondo dago HITZA».

### XABIER FERNANDEZ

BELA GIDARIA (IBARRA)

«Etorzten naizenean

hemen zer gertatzen den ikusteko»



«Herriko gauza txikiak agertzen dira. Beti kanpoan nabil eta etortzen naizenean, hemen zer gertatzen den ikusteko baliagarria zaib».

### OLATZ AMONDAIRAIN

ALKATEA (ALEGIA)

«Egunero hartzea eta irakurtzea eskatuko nuke»



«Euskararen normalizaziorako tresna egokia da. Jende askorengana iristen da eta horrek garrantzia handia du. Eskualdeko eguneroko kontuak euskaraz ematea garrantzitsua da. Bestalde naturale-na hori da, eskualde euskalduna delako. Horregatik HITZA egunero hartzea eta irakurtzea eskatuko nuke».

### FIDEL AZPIROZ

ALKATEA (ALKATEA)

«Iritzi desberdinak plazaratzeko aukera ematen du»



«Batik bat euskaraz irakurtzeko aukera hori eskuetan izatea gustatzen zait. Herrietako berriak gertutik ezagutzeko balio du. Eta iritzi desberdinak plazaratzeko aukera ematen du».



ARDO  
**BIOLOGIKOAREN**  
DASTAKETA

**BIHAR,**  
ostirala,  
18:00etatik  
20:00etara

SARRERA LIBRE

Nafarroa etorbidea, 15  
**TOLOSA**

[www.biologicogorrotxategi.com](http://www.biologicogorrotxategi.com)



AITOR IMAZ ▶ GIPUZKOAKO ABESBATZEN FEDERAZIOKO LEHENDAKARIA

# «Gipuzkoako abesbatzek Federaziora jotzea nahi dugu»

Aitor Imaz tolosarra da Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko lehendakari berria; Gipuzkoako abesbatzak dinamizatzea du helburu nagusienetako bat



EDURNE AYUSO

EDURNE AYUSO

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak lehendakari berria du pasa den azaroaren 6az geroztik: Aitor Imaz tolosarra. Imazi ez zaio lan makala egokitu, Gipuzkoan daude 100 abesbatzen gaineko ardura hartu baitu. Karguaz jabetu eta hilabete eskasera lehendakari moduan dituen lan eta erronkei buruz hitz egin dio HITZARI.

**Lehenik eta behin, zorionak. Gipuzkoako Abesbatzen lehendakari izatea espero al zenuen?**

Egia esan, bistakoa zen, azkenean ez baitzen beste hautagairik izan. Federaziotik esku-titz bat bidali zidaten orain arte lehendakaria izan den Jose Mari Aierdik kargua uzten zuela eta hautagaiak behar zituztela esanez. Inguruko jendea aurkeztu nendin animatzen hasi zen berehala. Nik hasiera batean ez nuen nahi, ez nuen halako historia batean sartu nahi. Astebetera deitu egin zidaten, eta azkenean, buelta asko eman ondoren, animatu egin nintzen. Nire buruari esan nion: 'Eta zergatik ez?'.

**Beraz, zu izan zara kargurako aukeratu den ausart bakarra?** Hasieran bi pertsona animatu ginen, beste hautagai bat ere

bazen. Baina, azkenik, ez dakit zergatik, atzera bota zen. Beraz, ni izan nahi naiz hautagai bakarra.

**Duela hilabete eskas jabetu zinen karguaz. Zeintzuk izan dira hartu dituzun lehen erabakiak, egin dituzun lehen lanak?**

Tituluaz jabetzean, ez nekien nondik hasi ere. Baina, lehenengo erabakia Federazioaren egoitza lekuz aldatzea izan da. Orain arte Erreterian egon da, baina egokiagoa iruditzen zaigu Tolosara ekartzea. Gipuzkoako eta Euskal Herriko Federazioak egoitza berean egon dira, guri ordea, zuzenagoa iruditzen zaigu bi federazioen egoitzak banatzea, horrela hobeto lan egingo dugulakoan. Beraz, lehendabiziko lana lokal bat aukitzea izan da. Udaletxean eta leku askotan galdetu behar izan dugu. Azkenik, lokal bat alokairuan hartu behar izan dugu. Espazio fisiko bat izatea beharrezkoa genuen, orain arteko dokumentuak eta materiala gordetzeko. Orain, lokala beharrezkoa genuen, orain arteko dokumentuak eta materiala gordetzeko. Orain, lokala beharrezkoa genuen, orain arteko dokumentuak eta materiala gordetzeko. Orain, lokala beharrezkoa genuen, orain arteko dokumentuak eta materiala gordetzeko.

**Erabakiak bakarrik hartzen dituzu ala babesa ematen dizun talde bat duzu?**

Talde berri bat ari gara orain lanean. Idazkariak eta diru zai-

naz gain, lau bokal daude. Bokalak aukeratzekoan, koruekin zerikusia duten ikuspegi guztiak kontuan hartzen saiatu gara. Alegia, haur abesbatza, helduen abesbatza, konpositorearen lana eta koru bateko zuzendariaren lana kontuan hartzen saiatu gara.

**Zein da Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren funtzioa?**

Lan talde berriak, hasiera-hasieratik helburu bat zehaztu dugu: Gipuzkoako koruek Federaziora jotzea nahi dugu. Gipuzkoako 100 koruak dinamizatuko dituen figura bat izatea nahi dugu. Koruek zalantzaren bat edo proposamenen bat dutenenan gugana jotzea nahi dugu, bestela, zertarako dago Federazioa, ezta?

**Aurrera begira, zer?**

Orain, datorren urteko programa osatu behar dugu. Horretarako, Federazioaren beharrak eta duen ahalmen ekonomikoa hartuko dugu kontuan. Bestalde, Federazioaren barruan dauden koru guztiei esku-titz bat bidali diegu. Gaur egun federazioaren egoera zein den eta zein asmo ditugun jakinarazteaz gain, koruen datuak eguneratu nahi ditugu. Orain arte Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako laguntza eta koruek urtero ordaintzen di-

tuzten kuotak izan dira diru iturri bakarra. Ate gehiago jartzeko asmoa dugu.

**Gaur egun zer moduzko maila dute Gipuzkoako abesbatzek? Azken urteetatik hona aldaketarik izan al da?**

Orain dela urte batzuk, Gipuzkoako maila oso ona zen. Espainian erreferente bat zen. Baziren lauzpabost koru oso onak zirenak. Koru horietan 30 lagun inguru egon ohi zen, talde handiak ziren. Jende gaztea zen eta lanerako gogo handia zuen. Bizitzako esparru guztietan izaten dira gorantzako eta beherantzako zikloak. Bada esan liteke, koruek orain beherantzako zikloan daudela. Egundako txikiagoak dira, 20 lagun ingurukoak izan ohi dira. Programa on bat osatu nahi baduzu, derrigorrez kanpoko jendea ekarri behar duzu. Gaur egun ere jende gaztea dago, baina, gauza guztietan gertatzen ari den bezala, jendea gero eta gutxiago konprometitzen da eta honek lotura handia eskatzen du.

**Zer egin behar du Federazioak?**

Urte osoko plangintza, beharrezkoa da jendeari pizgarriak ematea: ziklo gehiago, kontzertu gehiago. Gipuzkoako koruak eredu izan dira, eredu izan gaitzen berriro ere.

**Zeintzuk izan litezke kantu-gintza sustatzeko gakoak?**

Erakundeek, udalek, gaur egun ematen ez dioten bultzada eman behar zaio. Tolosako Abesbatza Lehiaketa antolatzeko ez da nahikoa. Urteak beste 11 hilabete ditu eta koruek lanean jarraitzen dute. Udalen kasuan, diru zati bat izaten da koruentzat, baina zer gertatzen da? Bada diru hori atzerriko abesbatzentzat izaten dela. Herriko jaiak antolatzekoan berriz, musika taldeak ekartzeko sekulako dirutzak gastatzen dira, eta abesbatzentzako ez dago dirurik. Zergatik ez dira koruen kantaldi gehiago egiten?

**Noren errua da?**

Komunikabideek ere badute eragina. Irratian esate baterako noiz entzuten da kantu bat? Gabonetan bakarrik. Telebistan ere antzekoa gertatzen da. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

GERTUTIK ▶  
AITOR IMAZ  
(FEDERAZIOKO LEHENDAKARIA)



## Kantuan darama bizitza

**A**itor Imaz tolosarra da Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko lehendakari berria. Hogeita bederatzita urte baino ez dituen arren, Imazek koruen mundua oso gertutik eta aspaldidanik ezagutzen du. Solfeo eta koraleko ikasketak egin zituen haurtzarroan. Askok pentsatu osten, Leidor abesbatza izena eman zuen duela 10 urte. 1997an Hodeiertz abesbatza ere kantuan hasi zen tenore tolosarra. Egundako Hodeiertz eta Leidor abesbatzetako kide izateaz gain, Gipuzkoako hainbat taldetan ere kantuan aritzen da: Kea ahots taldea; KUP taldea; Donostiako Ereski abesbatza; Ordiziako Oroith abesbatza, e.a. Imazek dioenez, «abesbatza guztiak dira desberdinak, baina horietako bakoitzak ematen dit zerbait». Kantuan darama bizitza Aitor Imazek.

orain arte zuzenean emititu izan da, aurtun ordea, ez. Kultura sustatu nahi bada, zergatik ez dute zuzenean eman halako kultur ekintza?

**Eta entzuleek, zer egin behar dute?**

Horiek ere badute ardura. Edozein herritan, kontzertuak daudenean implikazio gehiago eskatuko nieke. Pertsona talde batek lan handia egiten du eta hori baloratu egin behar da. Jende askok ez du sekula kantu kontzertu bat ikusi eta hala ere ez zaiola gustatzen esaten du. Kontzertu bat ikustera gonbidatuko nituzke guztiak, probatu dezatela eta ea gustatzen zaien.

## MUSIKA ▶



Santa Mariako orkestra, organoa eta abesbatza atzoko mezetan. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

**T**olosako musika zaintzea. Horixe dute helburu Santa Maria parrokiako musika kaperako kideek, abesbatza, organoa eta orkestrako kideek alegia. Urtean bederatzai handi ospatzen jarraitzen dute: Eguberri, Urte Berri, Erregeak, maiatzeko azken igandea, Korpus Kristi, San Joan, iraileko lehen igandea, Santa Zuzia eta Maria Sortzez Garbia —atzo—. Normalean Santa Maria parrokiaren bertan, eta maiatzeko eta iraileko ekitaldiak Izaskungo ermitan izaten dira. Lehen Pazko Eguna, Pentekoste Pazkoa, Andre Mari Birjinaren Zeruratzea, Santu Guztien Eguna eta beste jai erlijioso batzuk ere handiki ospatzen zituzten. Eta nola? Herriko musikarekin.

Eduardo Mokoroaren *In honorem S. Joannis Baptistae* meza interpretatu zuten atzoko meza nagusian. Eliza beteta. Kanpoko jende asko zen bertan, aspaldiko ohiturari jarraituz. Udal ordezkari batzuk ere tartean ziren. 1923an konposatu zuten meza hau musikari tolosarrak eta San Joan egunean estreinatu zuten. «Zati batzuetan herriak berak abestea du ezaugarri berezia. Mokoroa bera eskolaz eskola joaten zen ikasleekin entseatzeko, baina San Joan bezperak azterketa egunak zirenez, Maria Sortzez Garbia eguneanematea erabaki zuten, maila hobea izan zezan», azaldu dio HITZARI Jose Antonio Lasa parrokiako apaiza musikazaleak.

Ospe handia lortu zuen eta 1930ean Gasteizko Seminario berriaren inaugurazioa kantatu omen zuten, Mateo Mujika apezpikuak hala eskatuta. Alfonso XII. erregea eta beste hainbat agintari han omen zen. «Nire aitak han abestu zuten ti-

## Herriko aberastasuna zaintzen

Atzo, Santa Mariako musika kaperak Mokoroaren meza eskaini zuten

ple gisa. Orduan seminarista zen Saturraranean eta Mokoroarekin entseatzeko aritu ziren. Oso ondo atera omen zen», dio Ander Letamendia musika kaperaren gaur egungo zuzendaria.

«Meza honek armonizazio oso onak ditu eta ikutu modernoak. Zaila da interpretatzeko. Datorren urtean Txinparta elkartearen 75. urtemuga dela eta, hildako bazkideen aldeko mezetan Donostiako Orfeoia abestea nahi dugu. Jose Antonio Sainz Alfaro Orfeoiko zuzendariak uste zuen erraz egingo zutela, baina konturatu da lan pixka bat emango die-la», erantsi du Letamendia.

### Musika kapera bakarra

Eduardo Mokoroaren maisu izan zen Felipe Gorriti eta bere seme Ignacio Mokoroaren obra ugari entseatu eta eskaintzen ditu Santa Mariako kaperak: meza, salbe, motete... Aberastasun hori zaindu eta zabal-tzen saiatzen dira Ander Letamendiaren zuzendaritzapean. Organoan atzo Mariajere Rekondo alegiara aritu zen, Jose Arzelus titularrak kanpoan zelako.

Musika kapera bakarra da Euskal Herrian. Espainian ze-



ANDER LETAMENDIA  
ZUZENDARIA

«Armonizazio onak ditu mezak; Txinpartaren 75. urtemugan Donostiako Orfeoia abestea nahi dugu»

har oso gutxi gelditzen dira. «Pena da hain abeslari eta musikari gutxi izatea. 55 urte dararamatzat nik eta nire anaia Juan Josek 60 bat. Gaurko gazteek guk baino prestakuntza hobea dute musika aldetik, baina jai egunetan kanpora josten dira», dio Isitxo Arsuaga abeslariak. Abesbatzetako kideak eta batez ere gazteak parrokiako abesbatzan parte hartzerako gonbidatu nahi dituzte. Entsegu eta emanaldi asko ez dituzte izaten, baina oso lan interesgarria egiten dute: herriko musikari aberastasuna zaindu eta mantendu.

## 750. URTEMUGA ▶

### Airetik ateratako eskualdeko irudiak DVD-an

750. urteurrena Fundazioak antolatuta, gaur 20:00etan aurkeztuko da Leidor zinean *Tolosa begi-bistan* DVDa. Airetik ateratako irudiak jasotzen ditu lan honek 35 minututan. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dago. Aurkezpenerako gonbidapenak Kultur Etxean jaso ditezke eta gaur aretoan bertan salgai jarriko diren DVDak prezio berezian erosteko aukera ematen dute.

## EUSKARA ▶

### Amonarriz eta Asiskoren saioa Bonberenean

Bonbereneak bosgarren urtemugako ekitaldiekin jarraitzen du eta gaur 19:00etan umore saio bat izango dute bertan. Kike Amonarriz tolosarrak eta Asisko Urmeneta iruñarrak *Euskara lardaskatzeko manerak* hitzaldia eskainiko dute. Bihar Lobo electrico eta Brigada Criminal musika taldeak izango dira eta etzi, eskalada txapelketa eta May Gorostiagaren bakarrizketa.

## MUSIKA ▶



Txistulariek jende ugari bildu zuten atzo plaza Zaharrean. J. SAIZAR

### Txistu doinu alaiak kontzertu berezian

Udal Txistulari Bandak badaramatza urte batzuk Sortzez Garbiaren egunean kontzertu berezia eskaintzen plaza Zaharrean. Atzo ere halaxe egin zuten. Nahiz eta eguraldiak asko ez lagundu —euria ari zuen musikariaren emanaldiaren ulean— jende asko bildu zen meza nagusiaren ondoren udaletxeko arkupeetan, Iñaki Letamendiak zuzendutako bandaren doinu alaiak entzuterako. Olaizola, Sorozabal, Ansorena eta Sarriegiren komposizioak eta moldaketak eskaini zituzten entzuleen gozamenerako. Laguntzaile gisa Joakin San Sebastian eta Xabier Zelaia tronpetajoleak izan zituzten udal txistulariek.

## ZINE-KLUBA ▶

### 'Una película hablada' filma gaur Leidorren

Manoel de Oliveiraren *Una película hablada* filma ikus ahal izango da gaur zine-klubean, 21:30ean Leidor zinean. Historia irakasle batek eta bere alabak itsasuntzi batean Mediterraneoko zehar Bombayra, lanean aritzen denaren kontaketa, egiten duten bidaia kontaketa du. Hiru emakume sartzen dira untxian. Protagonisten arteko elkarrizketak oso desberdinak dira.

## POLITIKA ▶

### Lasagabaster eta Uxue Barkos, bihar udaletxean

Eusko Alkartasunak antolatuta, Madrilgo Kongresuan parlamentari diren bi emakume euskaldunen hitzaldia izango da bihar, ostirala, udaletxeko batzar aretoan. EAKo Begoña Lasagabaster eta Nafarroa Bai-ko Uxue Barkos *Euskal Herria Madrildik* gaia izango dute mintzagai. Ekitaldia 19:30ean hasiko da eta herriar guztiak gonbidatu nahi dituzte antolatzaleek.

ZIZURKIL ▶

**'Emakumea munduan' argazki erakusketa**

Emakumea munduan izeneko argazki erakusketa ikusgai dago Atxulondo kultur etxean. Amnistia Internazionalak prestatutako erakusketa da. Ondorengo ordutegian ikus daiteke: goizez 12.00etatik 13:00etara eta arratsaldean 16.00etatik 20:00etara. Erakusketa zabalik izango da, larunbata eta igandea salbu, datorren astelehena arte, hilak 13.

BERASTEGI ▶

**Hitzaldia gaur Gaztainondo jubilatuko elkartearen**

Gipuzkoa Kutxak Ikasgelak antolatuta, Gipuzkoako Eri-zaintzan Diplomatuaren Kolegio Ofizialaren laguntzarekin, *Arteria-hipertentsioa* hitzaldia egingo da gaur, 17:30etik aurrera. Hizlaria, Oihana Jauregi izango da eta lekua, herriko Gaztainondo jubilatuko elkartearen. Hitzaldia- ren helburua arteria-hipertentsioa ezagutzeko eta berorren zantzu eta sintomei antzematen erakusteko da, gaixotasunaro aurre hartzeko.

VILLABONA ▶

**Mahai-ingurua herrialde aberats eta pobreez**

Herrialde aberats eta behartsuen arteko desberdintasuna. Zor publikoa izeneko mahai-ingurua egingo da gaur 17:00etan, Biltoki jubilatuen elkartearen. Parte-hartzaileak Joxean Larrañaga Villabonako parrokoa, Maria Jose Aranguren EUTGko irakaslea eta Bateginik taldeko Pello Sarasua billabonatarra izango dira.

OREXA ▶

**Guraso Eskolaren bigarren saioa gaur arratsaldean**

Uli Mankomunitateak antolatuta, Guraso Eskolaren bigarren saioa egingo da gaur, 17:30ean hasi eta 19:00etara. Segoretan izango da saioa eta psikomotrizitateari buruz aritu dira. Guraso guztiak daude gonbidatuta.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

**Festa giroa Zunbeltz elkartearen urtemugan**

Hildako bazkideen aldeko meza, kalejira eta bazkaria egin zituzten atzo; 60 bat lagun elkartu ziren bazkarian

OLAIA ESKITXABEL

Zunbeltz elkartearen sortu zeneko 25. urteurrena izan zen atzo; bertako bazkideek ekitaldi ugari antolatu zituzten.

Hildako bazkideen aldeko mezarekin hasi zuten eguna; ondoren, eta Astiazaran anaien eta Juan Mari Beltranen musika doinuekin herriko kaleak zeharkatu zituzten kalejiran. Bazkal ondorenean ere hainbat abesti kantatu zituzten.

60 lagun inguru bildu ziren mahaiaren bueltan bazkari legea egiteko: «Elkartearen sortu eta hasierako hiru urtetan, bazkaria egiten genuen gaurko egunez, baina gauza asko luzatzen zela ikusita, azkenengo urteetan, afaria egin dugu. Aurtengoan, 25. urteurrenaren merezi duelako bazkaria antolatu dugu berriro», azaldu du bazkideetako batek.

Urteurrenaren harira, Santio jaietako egitarauak jarri zituzten erakusgai. 1948. urtetik aurrera arte jaietan izandako bertsolariaren zerrenda eta egitarauetan euskararen presentzia azaltzen zuen oharra ere irakur zitezkeen bertan.



Giro bikaina izan zuten atzo bazkideek, bazkarian. O.ESKITXABEL



Santio jaietako egitarau ugari ikus zitezkeen. O.ESKITXABEL

ZIZURKIL ▶ KIROLA

**Kirolaren inguruko hainbat ekitaldi burutuko dira asteburu honetan**

Larunbatean, 'Hamabi orduz kirolean Zizurkilen' egitasmoa

I. GARCIA

Asteburuaren kirola izango da protagonista Zizurkilen, hainbat ekitaldi antolatu baitira gaiaren inguruan. *Gazteak eta kirola* izeneko mahai-ingurua erekin hasiko dira bihar ekitaldiak. Iñaki Arratibel kirol medikua, Andoni Imaz, Maider Mendizabal eta Jon Odriozola izango dira solasaldian parte hartuko dutenak.

Larunbatean, *Hamabi orduz kirolean Zizurkilen* lelopean, hainbat ekitaldi burutuko dira kirolaren inguruan. Hasteko,

11:00etatik 13:00etara, hipika saioak Poni-Pottok zalditegian, bost eta hamabi urte bitarteko haurrentzat. 12:00etatik 13:00etara, zortzi eta hamabi urtetako haurrek rokodromoan lehen pausoak emateko aukera, Peuskate elkartearen eskutik.

Arratsaldean, 15:30etik 17:30era, eskolaz kanpoko kiroleko partidak Otaño eskolan. 18:00etatik 19:00etara bi aukera ezberdin izango dira. Alde batetik, pilotan aritzeko Behar zana elkarteko kideekin. Bestetik, halterofilia erakustaldia ikusteko Otaño, Danena-Ola-

ederra halterofilia taldearen eskutik. Antolatzaileek azaltzen dutenez, hipikan, rokodromoan eta pilotan parte hartu nahi duten haurrek izena eman behar dute Aurrera plazako udal bulegoetan. Gauean, Zizurkilgo VIII. Gau Krosa egingo da, 22:30ean hasita.

Igandean Bertizera irteera antolatu da. Autobusa doan izango da izena ematen duten guztientzat. Goizeko 9:00etan aterako da Joxe Arregi plazatik autobusa. Irteera honetan Bertizeko lorategira bisita gidatua egingo da.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Baliarrain.** Medikua: 88 90 03
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
  - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
  - ▶ Tolargi: 65 00 16
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25
  - ▶ DYA: 67 25 36
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
  - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
  - ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerbu: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzandi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888
- ▶ Txolarre Irratia: 69 80 38
- ▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Bronte, C. Korreo kalea 20 (Tolosa), 943 67 60 13.
- Gimeno, A.** Elbarren 52 (Leitza), 112

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18.
- tolosaldean\_publici@tolosaldeko hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
- tolosa@tolosaldeko hitza.info
- Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.
- villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
- Anoeta.** 687 41 00 22
- anoeta@tolosaldeko hitza.info
- Ibarraldea.** 687 41 00 32.
- ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34.
- alegialdea@tolosaldeko hitza.info
- Leitzalde.** 687 41 01 18.
- leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

**Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 9a, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzaleketa, Adura, Albitzu, Alege, Alkiza, Alzo, Amerieta, Anetoa, Bakarran, Belantza, Berastegi, Etxain, Herrialde, Ibarra, Inza, Lantzi, Leizorri, Leizorri, Oren, Tolosa, Villabona, Zuzarte  
besteriak: Leizaldeko Euskara Batordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**EU**

Eusko  
Jaurjaritza,  
Kultura Salla

**EURO**  
JURAMENTA  
TOLOSA

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

11

hotzena

9

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Pirritx eta Porrotxen *Patata, patata* ikuskizuna. Bihar kiroldegian 16:30ean.

**Berastegi.** Arteria-hipertentsioaz hitzaldia. Gaztairindongo jubilatutako elkartean 17:30ean.

**Ibarra.** Merkatu Txikirako material bilketa 17:00etatik 20:00etara Parrokian.

**Ibarra.** Osakidetzarekin tramiteak on-line (sarrea) klasea KZgunean 18:00etatik 20:00etara.

**Tolosa.** Katekistetzako hitzaldia: *Zuregan dagoen alde gizatiarra aurkitu.* 15:30ean parrokia etxean.

**Tolosa.** Kike Amonarriz eta Asiskoren *Euskara lardaskatzeko manerak.* 19:00etan Bonberenean.

**Tolosa.** *Tolosa begi-bistan* DVDaren aurkezpena. 20:00etan Leidor zineman.

**Tolosa.** Begoña Lasagabaster eta Uxue Barkosen hitzaldia. Bihar 19:30ean udaletxean.

**Tolosa.** *El cocidito madrileño* antzerkia. Bihar 20:00etan eta 22:30ean Leidor zineman.

**Tolosa.** Material birziklatuaz egindako I. Txobongilo Lehiaketa. Lanak Kultur Etxean aurkeztu bihar arte.

**Tolosa.** Batxilergoa Laskorainen bukatu zutenen tituluak Orixen jaso daitezke.

**Tolosa.** Haur Danborradan kantinerak aurkeztu nahi dituzten elkarteek argazkiak eraman Veleta elkartera.

**Orexa.** Psikomotrizitateaz Guraso Eskolan. 17:30etik 19:00etara Segoretxen.

**Villabona.** Mahai-ingurua: *Herrialde aberas eta behartsuen arteko desberdintasuna.* Zor publikoa. Biltokian 17:00etan.

### MUSIKA

**Anoeta.** Neu eta Legen Beltza. Bihar Gaztetxean 11:00etan.

**Berastegi.** Martxaundi gaua: Ezein eta DJ King. Bihar 22:30ean Urepelen.

**Tolosa.** Lobo electrico eta Brigada Criminal. Bihar 22:30ean Bonberenean.

### ZINE-KLUBA

**Ibarra.** *El misterio Galindez.* 21:45ean Gaztetxean.

**Tolosa.** *Una película hablada.* 21:30an Leidorren.

# Aralarko elur partea HITZAn

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶** Neguan zehar HITZAK Guardetxen eta Pagomarin elurra badagoen edo ez eta espero duten ala ez informatuko du egunero



Aralarreko paraje eder bat elurtuta; ea aurtengo neguan askotan ikusten dugun horrela! HITZA

JOXEMI SAIZAR

**E**z da lan erraza izango —hori hasi aurretik esan behar da—, baina eskia-zaile, mendizale eta elurzaleek eskertuko dute. Negu honetan, HITZAK Aralarreko elur partea emango du.

Ezaguna da Tolosaldean eta Leitzaldean eskirako dagoen zaletasuna. Eta eskiatzeko tokirik gertuena Aralar da: Albi, Guardetxe, Pagomari, Igaratza... ingurua. Zale horiei zerbitzua eman nahian, HITZAK negu honetan egunero elurraren egoeraren berri ematea pentsatu du. Guardetxen eta pagomarin nola dagoen eta nola espero duten azalduko dugu.

Informatzaile gisa Guardetxe-ko arduradunak eta zenbait eskiazaile izango ditu. «Arriskutsua da Aralarren elurraren aurreikuspen bat egitea. Gaur elurra izan eta agian bihar hego haizea sartu eta dena kentzen du», dio eskiazaile horietako batek. Inguru horretako puntu guztiak desberdinak direla zehaztu nahi dute adituek, altuera eta kokapenaren arabera leku batzuetan elurra egon daiteke, eta handik metro gutxira posible da batera ez izatea.

Aurtengo denboraldian, oraindik elur gutxi izan da, baina eskiazaile tolosar ezagun batek Aralarren jada sei alditan eskia duela azaldu du. Atzo Guardetxen eta Pagomarin ez zen batere elurrik, eta gaurko ere ez zuten espero gure informatzaileek. Ea negu honetan nahiko elur egiten duen eta eskiatzeko aukera asko dugun!

## ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Martxelo.  
Zorionak  
familiarren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Borja Moreno Rekondo  
(Tolosa). Gaur 6 urte.  
Zorionak ebekoaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Olatz Fernandez Becerril  
(Tolosa). Gaur 9 urte. Zorionak ama eta aitona-amonaren partetik.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletzeko bulegoa - **LEITZA**  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!